HIZKUNTZA BERRI BAT IKASTEKO METODOLOGIA

Bigarren hizkuntza irakasteko komunikazio ikuspegia

Hizkuntzaren zientzietan azken urteetan izan den bilakaerarekin bat datorren joera metodologikoa da komunikazio-ikuspegia. Joera horren arabera, hizkuntza arau-sistematzat hartzen duen ikuspegia gainditu eta komunikazioa izango da hizkuntza ikasteko ardatz nagusia.

Sormenaren eta prozesu kognitiboen garrantzia azpimarratzen zuten Chomsky-ren teorien ondoren, hizkuntzalari britainiar aplikatuek hizkuntzaren beste alderdi bat adierazi zuten: alderdi funtzionala eta komunikatiboa. Oinarri horien arabera, komunikatzeko trebetasuna hizkuntzaren egiturak baino garrantzitsuagoa da.

Hizkuntza arauen sistema hutsa baino gehiago da; esanahiak sortzeko tresna aktiboa da.

Komunikazio-ikuspegiak gehiago begiratzen dio hizkuntzarekin egiten denari hizkuntza berari baino, eta horren arabera zehazten ditu irakatsi behar diren edukiak, ikasleen eta irakasleen funtzioak, material motak eta erabiltzen diren prozedurak eta teknikak.

Hizkuntza-helburuak komunikazio-helburuak bihurtzen dira, hain zuzen ere: agurtu, denda batean hitz egin, ohar bat idatzi, iragarki bat irakurri eta ulertu… Helburu horiek aurretik planteatu diren beharren azterketaren ondorioz planifikatu eta aldatuko dira.

Hala ere, kontuan hartu behar da batzuetan “beharra” hitza gehiegitxo dela. Eta, horrenbestez, irakasleak lan egin beharko du, ikasleek aurkezten zaizkien proposamenetako batzuk komunikazio-behartzat jo ditzaten.

Ikasleen beharrak aztertu ondoren, komunikazio-ikuspegiak honako puntu hauek aurreikusten ditu:

- Komunikazio-egoerak. Adibidez, dendan.
- Helburu hori betetzeko behar diren funtzioak; hau da, zertarako behar dugun hizkuntza (tirita-kutxa bat erosteko).
- Funtzio horiek aurrera eramateko behar diren nozioak (objektuei, jarduerei, kualitateei eta abarri buruzko lexikoa) (botiken lexikoa, informazioa eskatu eta eman, elkarrizketetarako kortesiazko arauak, dirua, agurrak, etab…)
- Hizkuntza-adierazleak (agurtzeko erabiltzen diren formulak; arrazoiak azaltzeko, hipotesiak argudiatzeko eta abarrerako erabiltzen diren formulak).

Funtzio hori betetzeko beharrezkoak diren hizkuntza-egiturak ikasleen mailaren arabera aukeratu eta landuko dira, eta funtzio horien araberako komunikazio-estrategiak garatuko dira. Edukiak errentagarritasun-irizpideen arabera aukeratuko dira.

Dena den, egiten den hizkuntzaren sekuentziazioa oso garrantzitsua da komunikazioa arrakastatsua izateko.

Printzipio metodologikoak

- Irakaskuntzak ikaskuntza izan behar du ardatz.
- Hizkuntzak, komunikaziorako tresna den aldetik, formei eta esanahiei buruzko hizkuntza-gaitasuna garatzera eta funtzio linguistikoak ezagutzera behartzen du (oinazea edo ondoeza azaltzeko hizkuntza-funtzioak: min dut, -ko mina dut, gaizki nago…)
- Behar bezala komunikatzeko, ikasleak kontuan hartu beharko ditu testuinguru soziokulturala, solaskideen ezaugarriak, haien arteko harremanak, elkarrizketaren helburua… (ez dugu berdin hitz egiten eskaera ofizial bat egiten dugunean edo lagunekin hizketan ari garenean).

- Egiazko komunikaziora eramaten duten jarduerek ikaskuntza eragiten dute, eta, beraz, sustatu egin beharko dira, komunikazio hori sortzen duten egoerak aurkeztuz. Ikasleari aukera emango zaio esan nahi duena esateko eta nahi duen eran hautatzeko.
- Ikasgai den hizkuntza da klasean erabiliko dena.
- Komunikazio-ikuspegia bi printzipiotan oinarritzen da:
  a) Atazaren printzipioa: ikaskuntzarako lagungarri dira hizkuntza ikaslearentzat zentzua duen helburu bat lortzeko erabiltzea eskatzen duten jarduerak. Garrantzitsua da hizkuntza zerbait lortzeko tresna gisa erabili behar dela ikustea: ikaslearen eguneroko bizitzan, kalean, ikastetxean eta beste zenbait lekutan, helburu bat lortzeko.
  b) Esanahiaren printzipioa: ikaslearentzat zentzua duen hizkuntzak ikaskuntzaren prozesua finkatu eta laguntzen du. Horregatik, ikasleak hizkuntza benetan eta era esanguratsuan erabiltzeari ematen zaio garrantzia jarduerak aukeratzerakoan.
- Komunikazio-ikuspegian, oso kontuan hartzen da bai ikasleen eguneroko bizitza, bai eta hizkuntza eta kultura ere.
- Lau trebetasunak (entzumenezko ulermena, ahozko adierazpena, irakurmena eta idatzizko adierazpena) hasieratik lantzen dira eta era integratuan aztertzen dira prozesuan zehar. Hasieran ahozkoari ematen zaio lehentasuna, baina, geroago, guztiak era harmonikoan garatu behar dira.
- Irakasleak baliabideak eskaintzen ditu eta ikaskuntza errazten du; besteak beste, input- eta informazio-iturria da. Irakasleak arreta jarri beharko die ikaskuntza-prozesuei eta horrekin sortzen diren beharrei. Akatsaren kontzeptua beste era batean ikusi beharko du: akatsek pistak ematen dituzte ikasteko prozesuaz eta ikasleen tarteko hizkuntzaz. Batzuetan, irakasleak jarduera aurkeztu besterik ez du egin beharko, eta ikasleek gauzatu beharko dute. Protagonismoa ikaslearena da.
- Ikuspegi horrek hitz-jarioari ematen dio lehentasuna, zuzentasun gramatikalaren gainetik, komunikazioa eteten ez baldin bada, betiere. Horregatik, jarrera irekia izan beharko da akatsekiko, zuzendu egin beharko diren arren.

Ebaluatzerakoan, hitz-jarioa eta testuinguruaren araberako esaldiak erabiltzea zuzentasun formala baino gehiago balioetsiko da. Ebaluazio-probak ere komunikazioaren printzipioan oinarrituko dira. Horrenbestez, hizkuntza-egiturak eta lexikoa ulertu eta zuzen erabiltzea ez ezik, zenbait egoeratan erantzuteko gaitasuna izatea ere neurtuko da; alegia, kontuan izango da lortu nahi den komunikazio-funtzioaren araberako espresioak erabiltzea.

Teknikak eta prozedurak. Jarduerak

Komunikazio-ikuspegian lantzen diren edukiak helburuen menpe daude. Ez dira, besterik gabe, testu-liburuak agintzen duelako agertzen, benetako arrazoi bat dagoelako baizik. Eta zertan gauzatuko da hori? Bada, egiazko elkarren arteko komunikazioa sustatzea helburu duten jardueretan.

Komunikazioa sustatzeko, jarduerek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Informazio-hutsune bat izan behar dute: parte-hartzaile guztiek ezin dute informazio bera eduki, alferrikakoa bailitzateke elkarren arteko trukea. Bakoitzak duen informazioa lagunak duenarekin osatu behar da, helburu bat lortzeko (pertsona batek zinemara joan nahi du eta ez daki zer ematen duten; telefonoz hots egiten dio beste pertsona bati, informazioa eman diezaion).

- Ohiko komunikazio-egoeretatik ateratako hizkuntza-adibideak landu behar dira zenbait motatako materialak iturri dituztenak: elkarrizketa kolokialak, publizitate-hizkera, administrazio-agiriak, irratiko/telebistako laginak, sarrerak…. Hizkuntza mota horietan etenak, elipsiak eta abar ere ager daitezke.

- Errealitatearen efektu hori lortzeko, hizkuntza-trebetasunak integratu behar dira. Komunikatzen garenean ez ditugu trebetasunak era isolatuan erabiltzen, elkarren arteko harremanetan baizik, eta komunikazio-ikuspegiak elkarrekikotasun hori errespetatu nahi du:

Albiste bat entzuten dugunean	→	komentatu egiten dugu
(entzumenezko ulermena)		(ahozko sormena eta entzumenezko gaitasuna)

Iragarki bat irakurtzen dugunean (irakurrizko ulermena)	→	komentatu egiten dugu (ahozko sormena eta entzumenezko gaitasuna)
Gutun bat idazten dugunean (idatzizko sormena)	→	erantzuna jaso egiten dugu (irakurrizko ulermena)

Hala ere, jarduerak ez dira bortxatu behar lau trebetasunak integra daitezen. Garrantzitsuena trebetasunen arteko garapen orekatua izatea da.

- Jarduerek jarrera aktiboa bultzatu behar dute. Jardueretan adierazten diren aginduek ikasleek jarrera parte-hartzailea izan behar dutela adierazi beharko lukete.

- Aurkeztutako elementuek zailtasunean progresio bat izan behar dute. Edukiak ikasleen komunikazio-premien arabera mailakatuko dira.

Testuinguru sozialaren garrantziarengatik, simulazio-jarduerak asko erabiltzen dira, komunikazioa errazten baitute oso testuinguru sozial desberdinetan, funtzio desberdinekin. Simulazioak gehiago edo gutxiago egituratu edo zuzentzeko aukera izan badago. Parte-hartzaile bakoitzaren rola zein den eta zer egoeratan dagoen azaltzea komeni da, baina ez zaio egin behar duena esan behar. Egoerak zenbat eta gutxiago egituratu, orduan eta gehiago komunikatzen dute.

Jokoak eta problemen ebazpenak dira landu daitezkeen beste jarduera batzuk. Horretarako, ikono bidezko hizkera erabiltzen da, eta parte hartzen duten pertsonek elkarrekin egiten dute lan, irtenbide bat bilatzeko.

Ondorioak

- Komunikazio-ikuspegiak komunikazio-gaitasuna garatzea du helburu nagusia, eta, horregatik, hizkuntzaren hizkuntza-alderdiak eta hizkuntzaz kanpoko alderdiak (keinuak, gorputz-jarrerak, kultur distantzia) hartzen ditu kontuan.
- Hizkuntzaren formari baino arreta handiagoa ematen zaio erabilpenari eta, ondorioz, hizkuntza eguneroko bizitzan erabiltzen den tresna bihurtzen da. Hizkuntza ez da berez helburua, elkarrekintza-tresna baizik.
- Horrela, hizkuntza ikasteari buruzko ikuspegia zabaldu egin daiteke, hizkuntza-formak eta -egiturak behar diren komunikazio-funtzioekin lotzen direlako, eta komunikaziorako estrategiak garatzen direlako. Horregatik, ikasleen premiak azaldu beharko dira eta hizkuntza zer egoeratan erabili beharko den adierazi, baita zer funtziotarako erabiliko den eta zer hizkuntza-nozio eta adierazle behar diren.
- Ikasleek trebetasunak eta estrategiak garatzea da kontua, hizkuntza eraginkortasunez eta egoera jakinetan erabiltzeko tresna izan dadin.
- Testuinguruak garrantzi handia izango du, eta, horrekin batera, baita hizkuntzari lotutako gizarte- eta kultura-alderdiek ere. Hizkuntza-formen gizarte-esanahiaz jabe dadin ohartarazten zaio ikasleari.
- Ikasleek ikaskuntzari begira dituzten premiak eta itxaropenak prozesuaren barruan sartzen dira.

(Itzulpena: Ricardo Cruz Lopez-Claret)

Gehiago jakiteko

EQUIPO PEDAGÓGICO NEBRIJA (1997). *Historia de la metodología de las lenguas extranjeras.* Madril. Antonio de Nebrija Fundazioa.

EQUIPO PEDAGÓGICO NEBRIJA (1997). *Principios metodológicos en los enfoques comunicativos.* Madril. Antonio de Nebrija Fundazioa.

GELABERT, M. J.; MARTINELL, E: HERRERA, M eta MARTINELL, F. (1966). *Repertorio de funciones comunicativas del español. Nivel umbral, intermedio y avanzado.* Madril. SGEL.

LINEROS, R. Diferentes documentos teóricos y prácticos sobre la enseñanza comunicativa de lenguas, in: http://www.contraclave.org/espanol.htm

LITTLEWOOD, W. (1996). *La enseñanza comunicativa de idiomas. Introducción al enfoque comunicativo.* Madril. Cambridge.

NUNAN, D (1998). *El diseño de tareas para la clase comunicativa.* Madril. Cambridge.